

telebista ♦ irratia

‘Lo que faltaba’ dekoratu berriarekin itzuliko da gaur

Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzolaren magazina ukitu berriekin bueltatuko da

Erredakzioa / Donostia

Astebeteko oporren ostean, dekoratu berriarekin itzuliko da gaurtik aurrera *Lo que faltaba* magazina ETB2ko pantailetan. Arratsaldeko saioak betiko atal eta kolaborazioekin jarraituko du.

ARRI GRANADOSEK zuzenduta eta Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzola aurkezle lanetan, eduki berriak izango dituen etapa berri bat hasiko da *Lo que faltaba* magazinean.

In & Out astearteko atala da azken berrikuntza. Maria Arana, Iñigo Olasagasti, Pedro Usabiaga eta Adela Gonzalez adituek moda lokaletan, objektuetan eta giza harremanetan zer eramaten den eta zer ez den eramaten jakinaraziko dute.

Xabier Zelaia dekoratzailearen atalak jarraitu egingo du, etxeko txokoak dekoratzeko ematen dituen gomendioekin batera. Horrez gain, Fran Casadok modako azken berrikuntzak eta Oscar Guineak estetika eta ileapainketari buruzkoak ezagutaraziko dituzte. Unai Etxabe eta Itxaro Zubillaga kazetariak ere beren ohiko atalei eutsiko diete: *Unairen showa* eta Zubillagak ostegunero kontsumoaren inguru-



Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzona berriro izango dira ‘Lo que faltaba’ saioan oporren ostean.

ruan ematen dituen aholkuak.

Euskal Herritik kanpo

Gainera, *Lo que faltaba* magazina astero Madril eta Bartzelonan izaten da, Marta Moure eta Arantxa Furundarenarekin; eta Olatz Arrieta eta Marlene Merikaetxebarriak, berriz,

New York eta Erromako berriak emango dituzte.

Ostiraletan, *Tertulia 2000* atalean, Begoña Ameztoy eta Alberto Vidalek, XX. mendeko gizarte arloko gaiak jorratuko dituzte. Egun horretan, Maria Diazek Madrilén gertatzen diren albiste *arrosak* kontuko dizkigu. Eta Iñigo Lejarza, Begoña Atutxa, Maria Diez eta Manu Gonzala-

lezek *bihotzeko* aldizkariari errepasoa egingo diete.

Estetika eta edertasunari buruzko Begoña Ameztoyren erreportaia, Ignacio Antepararen medizina aholkuak, Andrea Uñaren aholku praktikoak, Martin Llade eta Fernando Mikelajauregiaren zinema tertuliak eta Abene Mendizabalen turismo aholkuak dira beste atalak.

Maiatzean estreinatuko da ‘La primera noche’, ETB2an

■ Lorena Bernalek gidatuko du barietateen programa, ostiralero, gaueko 22:00etan

Erredakzioa / Donostia

LORENA BERNALEK aurkeztuko duen barietateen programa maiatzaren 5ean estreinatuko da eta berarekin batera Carlos Sobera aktore eta aurkezlea izango da. Ondorengo asteetan Patxi Alonso, Julio Ibarra, Andoni Ferreño eta Txetxu Ugalde ariko dira aurkezle lanetan Lorena Bernalekin.

Musika saioak, umorea, moda eta dantzak izango dira *La primera noche*-n. Horrez gain, lehiaketa bat izango da. Bertan, abeslari berriek bi proba egin behar dituzte: aurretik prestatu duten abestia kantatu eta jarriko zaien abesti bat asmatu. Gainera, Silvia Sola eta Roberto Mosoren *La barra de la risa* atalean txisteak kontatuko dira.



Lorena Bernal eta Carlos Sobera.

laburrean

‘El televisor’ telefilma Chicho Ibañez Serradorri buruzko saio berezian

Chicho Ibañez Serradorri telebistako programen zuzendariari buruzko saio berezia izango da gaur TVE1 katean, gaueko 22:00etan. Bertan, *El televisor* telefilma ikusi ahal izango da, duela 25 urte lehen aldiz eskainitakoa. Gaurko programa, *Historias para no dormir*-en, atal berrien aurrerapen bezala eskainiko dute, *prime time*-an. Chichoren aitak egiten du protagonistaren papera, Narciso Ibañez Menta aktoreak. Berarekin batera, Maria Fernanda D’Ocon eta Kitty Manver aktoreak daude, besteak beste. *Sus terrores favoritos* leloarekin, 1965etik 1982ra emititu zen *Historias para no dormir* programa. Terrorezko generoko hainbat pelikula bota ziren.



GARI GARAIALDE

Ruper Ordorikarekin solasean gaur ‘Bertatik bertara’ saioan

Ruper Ordorikarekin arituko da solasean gaur Lordi Saralegi ‘Bertatik bertara’ saioko kazetaria. Oñatiko abeslariaren *Gaur* izeneko diskoaren nondik norakoak eskainiko ditu.

‘Ay, Carmela!’ antzezlanaren ‘Estudio 1’ programan

TVEko *La Primera*-k Jose Sanchisen *Ay, Carmela!* antzezlanaren eskainiko du *Estudio 1*-en gaur, 23:20an. Manuel Iborrak zuzendurik, Veronica Forque eta Juan Diegok interpretatuko dute. Espainiako Gerra Zibilean giroturik dago eta komiko bikote baten bizipenak kontatzen ditu.